



Kurtso hasiera

Guraso agurgarriok,

Ongi etorri *Quick Minds*-era!

Quick Minds Lehen Hezkuntzako sei urteetarako sei nibeletako ingeleseko kurtsoa da. Haur Hezkuntzan ikasitako ingelesari jarraipena ematen dio, eta Espainian dauden Lehen Hezkuntzako ikastoletako ingeleseko hizkuntzaren irakaskuntzarako kurrikulumari jarraituz garatu da.

Ikasturte honetan, zuen seme-alabak *Quick Minds 2*-rekin ikasiko du ingelesa. *Quick Minds 2*, *Quick Minds 1*-eko lau *Super Friends*-ekin ('Super Lagunak') hasten da. Horiek, Whisper, animelakien hitz egin dezakeena; Thunder, oso indartsua; Misty, ikusezina egin daitekeena eta Flash oso azkar korrika egiten duena dira.

Istorio bizidunekin ongi pasatzen duten heinean, gai desberdinetara hurbilduz, **hiztegi** eta **gramatika** erabilgarria ikasiko dute, eta baita kantu **dibertigarriak** ere.

Zuen seme-alabaren ingelesa etxetik ikasteko esperientzian parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. *Quick Mindsek* online dituen jarduera interaktiboekin egin dezakezue, www.quickmindsapps.es orrialdea bisitatuz. Bertan, familian jolasteko **hiztegi** eta **gramatikako jolas interaktibo dibertigarriak** daude. Abesti eta istorioak online ere eskuragarri daude. Horrela, edozein unetan abestiak abestu eta istorioak ikusi eta entzun ditzakezue.

Espero dugu *Quick Minds*-en ingelesarekin zuen seme-alabak bezain ongi pasatzea!





Welcome The school bag gaia

Guraso agurgarriok,

Ikastarorako sarrera unitatean (*Welcome Unit*), *The school bag*, zuen seme-alabak **alfabeto ingelesa**, ingeleseko hitzak **letreiatzen** eta **11tik 20rako zenbakiak** ikasiko ditu. Horrez gain, berak eta bere gelakideek duten eskolako tresneriari buruz galdetzen eta erantzuten ikasiko du. Ikasitakoa, online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** praktikatu dezake.

Eska iezaiozue zuen seme-alabari alfabetoaren **abestia** abesteko. Abestia eta **karaoke** bertsioa ere, online entzun dezakezue.

Ikasgai honetako **istorioan**, *Super Friends*-ak tren bat salbatuko dute. Galdetu zuen seme-alabari zein de arazoa eta ea *Super Friends*-ak nola konpontzen duten. Ez ahaztu **istorio biziduna** batera ikusteaz.

Ongi pasatzea espero dugu!





1 gaia **Back to school**

Guraso agurgarriok,

1. gaian, *Back to school*, zuen seme-alabak eskolako **gelako altzarien** hiztegia, eta baita, **gelako guzak non dauden** galdetzen eta erantzuten ikasiko du. Gauzak non dauden zelan esaten den praktikatzeko, akziozko jolas batera jolastuko du. Ez ahaztu online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** jolastea!

Zuen seme-alabak gela dibertigarriaren **abestia** ikasi eta abestuko du. Eska iezaiozue abesteko, edo batera abestu eta dantzatu!

Galdetu zuen seme-alabari zer gertatzen den ikasgai honetako *Super Friends*-en **istorioan**. Zelan harrapatzen du pertsonaia bakoitzak lapurra? Ikus ezazue batera **istorio biziduna**, online.

Gainera, zuen seme-alabak **Tangram** eta **formen** inguruan ikasiko du, eta gero bere Tangrama egingo du. Eskatu bere Tangrama erakusteko eta irudi batzuk zuei egiteko.

Unitatearekin ongi pasatzea espero dugu!



2 gaia The zoo

Guraso agurgarriok,

2. gaian, *The Zoo*, zuen seme-alabak **animalien** hiztegia ikasiko du eta berari eta beren lagunei egitea gustatzen eta gustatzen ez zaizkien gauzen inguruan hitz egiten eta galdetzen ikasiko du. Bere gelakideekin gustatzen zaizkion eta gustatzen ez zaizkion animaliei buruz hitz egingo du, eta animalia baten marrazkia eginez eta horri buruz bere gelakide bati hitz eginez, ahozko komunikazioa landuko du. Online dauden **hiztegi eta gramatikari buruzko jolas interaktiboekin** jolastu dezakezue gehiago praktika dezan.

Animatu zuen seme-alaba animaliei gustatzen zaien janariaren inguruko **abestia** abestera. Guztiak batera abestu **karaoke** bertsiorekin eta ederto pasatu!

Ikasgai honetan, *Super Friends*-ak zooko zaindariari karioletatik ihes egin duten animalia batzuk batzen lagunduko diote. Ikus ezazue online dagoen **istorio biziduna** eta ea *Super Friends*-ak nola harrapatzen dituzten animaliak. Hitz egin zuen seme-alabarekin zein den berak gogokoen duen animalia.

Azkenik, **sormen** ikasgaian, zuen seme-alabak animalien konbinazio baten irudikatze gidatu bat entzungo du. Gero, hainbat animalia ezaugarriak dituen animalia fantastiko bat imajinatu eta marraztuko du. Eska iezaiozue bere marrazkia erakusteko eta izaki berri hori osatzen duten animaliak zeintzuk diren esateko.

Ikasgai honekin ongi pasatzea espero dugu!



3 gaia My bedroom

Guraso agurgarriok,

3. gaian, *My bedroom*, zuen seme-alabak **etxeko altzarien** hiztegia ikasiko du. Horrez gain, **hurbil eta urrun** dauden tresnak adierazten eta bere ondasunen inguruan hitz egiten ikasiko du. Ez ahaztu online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** jolastea!

Eskatu zuen seme-alabari Timothy McKane-ri buruz hitz egiteko eta galdetu ea **abestian** non dagoen. Bere amari laguntzen ari da? Animatu zuen seme-alaba *Timothy McKane* **abestia** abestera.

Galdetu zuen seme-alabari nola dagoen Flash-en logela **istorioaren** hasieran. Nola saiaturko da txukuntzen? Zergatik Flash ezin da bere lagunekin parkera joan? Ez ahaztu **istorio biziduna** batera ikusteaz!

Bukatzeko, zuen seme-alabak **birziklatzeari** buruz ikasiko du. Esaiozue birziklatzeak duen garrantzia eta honek ingurumena zaintzen laguntzen duela.

Unitatearekin ongi pasatzea espero dugu!



4 gaia **Come to my party!**

Guraso agurgarriok,

4. gaian, *Come to my party!*, zuen seme-alabak **aurpegiko atalen** hiztegia eta **pertsonak deskribatzen** ikasiko du. Hiztegi berria praktikatzeko, ikaskideekin batera asmakuntza-jolas dibertigarri batera jolastuko du. Online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** jolastu, hiztegia gehiago praktika dezan.

Animatu zuen seme-alaba umearen eta bere aitona-amonen **abestia** abestera. Galde iezaiozue ea bere aitona-amona eta izeko-osabekin zer gustatzen zaion egitea. Abestu batera!

Ikus ezazue online dagoen **istorio biziduna**, *Thunder's party*. Galtzen jakitearen garrantziaz hitz egin.

Azkenik, **sormen** ikasgaian, zuen seme-alabak urtebetetze festa baten inguruko irudikatze gidatu bat entzungo du. Gero, bere festa imajinatu eta marraztuko du. Eskatu bere marrazkia erakusteko eta festan gertatzen den guztia kontatzeko. Nortzuk daude? Zelakoak dira?

Ongi pasatzea espero dugu!





5 gaia **Off we go!**

Guraso agurgarriok,

5. gaian, *Off we go!*, zuen seme-alabak **garraioari** buruzko hiztegia ikasiko du. Horrez gain, une horretan egiten ari denari buruz hitz egiten ikasiko du, eta bere lagunei galdetuko die zer egiten ari diren. Bidaiatzen ari dela marraztuko da eta bere marrazkiei buruz hitz egingo du gelakideekin. Ez ahaztu unitatea erreparatzeko online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** erabiltzea.

Online entzun bidaiatzeri buruzko **abestia**. Guztiok batera abestu **karaoke** bertsioarekin eta dantzatu!

Galdetu zuen seme-alabari ea zer gertatzen den ikasgai honetako *Super Friends*-en **istorioan**. Zein arazo dituzte hondartzarako bidean? Orain, batera ikusi online dagoen **istorio biziduna**.

Bukatzeko, zuen seme-alabak **neurketaren** inguruan ikasiko du. Erregela erabiliz gelako tresna desberdinak neurtuko ditu. Jarduera honetan sakontzeko, etxeko tresna eta altzariak neurtu ahal dituzue.

Unitatearekin ongi pasatzea espero dugu!



6 gaia Sports club

Guraso agurgarriok,

6. gaian, *Sports club*, zuen seme-alabak **kirolari** buruzko hiztegia eta ariketak deskribatzeko **izenondo** batzuk ikasiko ditu. Bere gustoko kirolei buruz hitz egingo du gelakideekin. Ez ahaztu online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** jolastea.

Animatu zuen seme-alaba kirolen **abestia** abestera –edo batera abestu **karaoke** bertsiorekin.

Eskatu zuen seme-alabari *The football club* **istorioan** gertatzen dena kontatzeko. Gero, ikusi batera online dagoen **istorio biziduna** eta pertsonak ez baztertzeak duen garrantziaz hitz egin.

Azkenik, **sormen** ikasgaian, umeen garaikur bati buruzko irudikatze gidatu bat entzungo du. Gero, kirol lehiaketa irabazteagatik eman dioten garaikurra imajinatu eta marraztuko du. Eskaiozue marrazkia erakusteko eta zein kirolean irabazi duen esateko.

Ongi pasatzea espero dugu!



7 gaia In the countryside

Guraso agurgarriok,

7. gaian, *In the countryside*, zuen seme-alabak **baserriko animalien** hiztegia eta forma **plural irregularra** dituzten izenak ikasiko ditu. Gelakideekin, baserriko animalien soinuak egitera jolastuko du. Hiztegia berrikusteko, online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** erabili.

Galdeiozu zein den bere baserriko animaliarik gustukoena. Animatu zuen seme-alaba *Animal boogie* **abestia** abestera. Eta **karaoke** bertsioa ere erabil dezakezue!

We're lost!, **istorio biziduna** batera ikusi. Beharrezkoa denean laguntza eskatzeak duen garrantziaz hitz egin. Galdetu zuen seme-alabari behin untxia galdua, nola usten duen Super Friends-ak etxera itzuli direla.

Azkenik, zuen seme-alabak **animalia taldeei** buruz ikasiko du eta bere gelakideekin batera, gai honi buruzko aurkezpen bat prestatuko du. Galdeiozu zein den berak gogokoen duen animalia taldea

Unitatearekin ongi pasatzea espero dugu!



8 gaia Amusement park

Guraso agurgarriok,

8. gaian, *Amusement park*, zuen seme-alabak **jolas-parkeetako** hiztegia eta egitea gustatuko litzaiokeenari buruz hitz egiten ikasiko du. Jolas-parke batean bere lagunekin egingo zituzkeen gauzak azalduko ditu. Horrez gain, orain arte ikasitako hiztegia eta gramatika berrikusiko ditu. Berrikusketa sakontzeko, online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** erabili.

Animatu zuen seme-alaba jolas-parkean egiten diren gauzen **abestia** abestera. Galdetu ea zer den jolas-parketik gustukoena duena. atrakzioak? janaria? jolasak? Ez ahaztu **karaoke** bertsoiarekin abestea!

Galdetu zuen seme-alabari zer gertatzen den ikasgai honetako *Super Friends*-en **istorioan**. Nola sahiesten dute Super Friends-ak gizonak sagar txarrak saltzea? **Istori biziduna** online ikusi dezakezue.

Azkenik, **sormen** ikasgaian, zuen seme-alabak azoka baten inguruko irudikatze gidatu bat entzungo du. Gero, bere azoka imajinatu eta marraztuko du. Eskaiozue marrazkia erakusteko eta barneratu dituen jarduera eta atrakzioak kontatzeko.

Ongi pasatzea espero dugu!





Kurtso amaiera

Guraso agurgarriok,

Ikasturte honetan, zuen seme-alabarekin batera *Quick Minds 2*-ko ingelesa etxetik landuz ongi pasatu izana espero dugu. Eta era berean, online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** jolastuz, istorioak ikusi eta irakurriz, eta abestiak entzun eta abestuz gozatu izana.

Gogoratu, edozein unetan, gehien gustatu zaizkizuen jolas interaktiboekin jolastu, istorio bizidunak berriro ikusi eta gogokoen dituzuen abestiak berriz abestu ditzakezuela.

Bukatzeko, *Super Friends*-ei: Whisper, Thunder eta Flash-eri, zuek agurtzea gustatuko litzaieke eta opor zoriontzua opa dizkizute!

